



EKAINAK 6, LARUNBATA DEUSTUKO IKASTOLAREN IKASTURTE AMAIERAKO JAIA

Urtero legez, ikasturte amaierako jaia prestatzen ari gara. Familiako kide guztiek hartu ahal izango duzue parte ibilaldian (XIII. Mendi Martxan), lagunarteko bazkarian eta ekintza entretenigarrietan.

Aurten, jaieguna EKAINAREN 6an izango da (larunbata). Hona hemen egitaraua:

10:00etan: Ikastolan bilduko gara, eta, denok gaudenean, MENDI MARTXARI ekingo diogu. Berrizera iritsi, eta, han, indarrak hartzeko hamaiketako egingo dugu.

Beheranzko bidean, Arangoitiko eskolan geldituko gara.

13:00etan: Ikastolan, guztientzako INDAR-BERRITZEA (txorizoa, sagardoa, txakolina, freskagarriak...).

14:00etan: Ikastolako jantokian, LAGUNARTEKO BAZKARIA.

Lehenengo txanda, haurrentzat (15:00ak arte);

Bigarren txanda, helduentzat (15:00etatik aurrera).

15:00etatik aurrera, berbena.

16:45etik aurrera, ur borroka.

OHARRAK:

- Bakoitzak bere janaria ekarri behar du. Guraso elkarteak kafea jarriko du.
- 15:00etan Ikastolako kanpoko ateak itxiko dira 16:45 ak arte
- 16:45ean: Ikastolako ateak irekiko dira. Patioan: UR BORROKA.

(ORDU HORREN AURRETIK, URA EZIN DA UR BORROKARAKO ERABILI. ESKERRIK ASKO)

IZENA EMATEA (ekainaren 2a baino lehen, mesedez):

Parte hartzea doakoa izango da. Hala ere, zenbait prestaketa ondo egin ahal izateko, partaide kopurua jakin behar dugu. Horregatik, bazkarian parte hartu nahi duzuenok, eman izena www.deustukoikastola.org webgunearen barruan dagoen Mendi Martxako orrian.

Patioan lagun direnekin eta eskolaz kanpoko ekintzetako beste gurasoekin ados jarri, eta parte hartzeko prestatzen hasi. Ez izutu "mendi" hitza entzutean, ibilbidea oso erraza da eta.

HAURREN ARDURA

Familien jaia da; beraz, une guztietan, haurren ardura beren familiakoena izango da. Bazkarira geratu nahi duten haur guztiek helduren baten ardurapean egon behar dute, eta ezin dira haien kontura etorri (DBHkoak izan ezik).